

## Beste iturrietatik

### **Testu-motak\***

Jean-Michel Adam  
(Lausanne-ko Unibertsitatea,  
Suitza)

Gure oraingo lan honek ez dio testuen "gramatikari" heltzen (hitz honen esanahi hertsian); aitzitik, subjektuaren gaitasun testualaren planteamendu bat izan nahi du (1). Gogoeta hau, beraz, ikerketa linguistiko, pragmatiko, semiotiko, soziolinguistiko eta batez ere psiko-kognitiboen bidegurutzean dago kokatua. Gaur egun ulerkuntzari eta gauzak gogotan hartzeari egiten ari zaizkien ikerketen argitan esan dezakegu subjektuaren gaitasun diskurtsiboa osatzen dutela: komunikamenak eta gaitasun testualak. Gaitasun testual zabal honen (egoera pragmatiko bakoitzari sintaktikoki perpausak eta semantikoki proposizioak lotzeko bidea ematen baitu) atal bat aukeratu dut aztertzeko: subjektuak berez atzematen duela testu bat "narrazioa" dela, beste bat "argudiozkoa" edo beste hura "deskribatzekoa". Eleberri batean, edozein irakurlek aurkituko ditu berekasa deskribapenak (askotan gain-gainetik bakarrik irakurriko edota saihestuko dituenak), elkarriketak edo narrazioak. Era horretan, testua hautazkoa da eta kontaketa bat "erakargarritzat" edo "motel eta aspergarritzat" hartua izango da segun eta nagusiki narraziozkoa den edo deskribapenezkoa; horrek ezinbestean eraman behar gaitu testuen tipologietan pentsatzera. Begien bistakoa da ez direla era berean irakurtzen deskribapen bat edo poema bat edo elkarriketa bat. Testu-mota edo hurrenkera testual bakoitzak estraategia eta gaitasun desberdinak eskatzen ditu.

Didaktikaren ikuspegitik, nire ustez, testuak globalki planteatu behar dira (2), testu-motatan eta tipologiatan. Nirekiko, testu-eskemen teori-zazioak bere-berea du planteamendu hori; eskema global horiek -narrazioarenak, deskribapenarenak eta (batez ere) argudiozkoak- ematen bai-

tiote testuari artikulatu eta hierarkizatutako zerbait izateko kohesio eta koherentziaren bermea. Gainegitura-eskemen teoria orokorra oraindik ere bere hastapenetan dago, eta, dirudienez, testu-mota guztiek ez dute maila bereko barne egiturarik; hala ere, esan daiteke frantsesean –bai ama-hizkuntza, bai hizkuntza arrotz bezala– *eskema global batzuk eza-gutu eta menderatzeak erraztu egiten duela adimenaren tratamendua*.

Teoriaren marko orokorrean, testuak elkarrekin lotutako hiru mailatan antolatuta daude:

- Testuaren (edo testu-hurrenkeraren) *alderdi pragmatikoa*; honi testuak (edo hurrenkerak) burutzen duen “berbaldiko makroegintza” deitzen diote.
- *Eduki globala* edo “makroegitura semantikoa”.
- *Eskema globala* edo “testuaren gainegitura”.

Nik hirugarren honi bakarrik helduko diot.

### **Gaurko tipologiak**

Tipologiagintzan hiru saio edo joera nagusi bereiz ditzakegu:

- 1 Lehenengo joera bat, hizkuntzaren funtzioetatik edo Jakobson-en eskema famatutik datorrena. *Expresion-Communication*-en (A. Colin 1973) eta “Fonction du langage et pédagogie de la communication”-en (*Pratiques* 40. zenb., 1983) F. Vanoyen-ek eskema horretatik ateratako sailkapenei egingo diete erreferentzia. Lita Lundquist-ek ere horrela bideratua dauka bere tipologia: ikus *L'analyse textuelle*, 17-27. orr. (CEDIC 1983).
- 2 Bigarren joera, azaleko hizkuntz markei (aditzaren aldiak, deiktikoak, konjugazioko izenordeak, etab.) arreta gehiago jartzen diena, enuntziatuari buruz Benveniste-k (3) dituen tesietatik sortua da zuzen-zuzenean. Alde horretatik, lanik interesgarrienak Jenny Simonin-Grumbach-enak dira (irakurri beharrekoa da “Pour une typologie des discours” *Seuil* 1975, 85-121. orr. *Langue, discours, société*, Emile Benveniste-ren omenezko bilduma. Irakur, hala berean, J. S. -G.-ren artikulua in *Pratiques* 13, zenb. 1977). Artikulu horiez gain, hor daude Geneven J.-P. Bronckart-en inguruan egindako ikerketak ere. Honek dioenez, enuntziatio-egoera bakoitzak enuntziatu-modu bereziak sortzen ditu, eta testuaren barrutian bakarrik dute esanahia atal morfologiko eta sintaktikoek. Funtsean bereizten ditu: Egoeretako berbaldiak, Berbaldi teorikoa eta Narrazioa. Bronckart-ek berrantolatu egin du, aldez, J. S. -G.-en tipologia, azken hau Benveniste-k aurkitutako hiru enuntziatio-motei begira baitago: *Berbaldia, Historia eta Berbaldi-Kontakizuna* (relate) (enuntziatio zuzenekoak, zeharkakoak eta zeharkako librea). Berak, testu-mota hauei, egoerak markatutako ezaugarriak ez duten beste bi gehitzen dizkie: *Testu teorikoak* (berbaldi-motak nahasten dituztenak) eta *testu poetikoak*.

3 Hirugarren joera bat, Frantzian hain ezaguna ez dena, eta gutxiago landutakoa, baina zenbaitetan aipatzen dena E. Werlich-ena da (4). Bost egitura-mota bereizten ditu, bakoitza ezagumen-prozesu berezi bati lotua. Berak dionez, bost mota horiek “ingurunera bideratutako hizketa-egintzek eta inguruneko zertzelada jakin batzuek eragindako erreakzioek martxan jarri eta garatzen dituzte”:

- 1 *Deskribapen-motako egiturak* espazioko antolamenduak aurkeztu ditu.
- 2 *Narrazio-motakoak* denboraren barruko bilakaeretan du ardatza.
- 3 *Azalpen-motakoa* kontzeptuen analisi eta sintesiarekin lotuta dago.
- 4 *Argudiozkoen motakoak* jarrera bat hartzean du ardatza.
- 5 *Argibideak emate-motakoak* ekintzara bultzatzen du.

Ni bat nator Werlich-ekin horrelako sailkapen bat egiteko eta sail bakoitzean nagusi diren adimen-prozesuen (espazioaren *continuum*a Ingoan, denborarena 2.ean, kontzeptuen lotura 4.ean) kontzeptuak zerrendatu eta elkarri lotzeko irizpidean. Enuntziatuak ulertzeko inferentzi eredu baten markoan kokatzen dut bereziki neure gogoeta: irakurleak bere ustez egiantzik handiena duen mezua atzematen du beti. Irakurtzea, besteak beste, testu-motari buruzko hipotesiak egitea da. Dirudienez, irakurleak azaleko zenbait aztarna aurkitzen ditu irakurgaietan eta, Werlich-ena bezalako eskematizazio batean (alde) oinarrituta, testu base koherente bat eraikitzen du. *Narrazioa* dela antzemango du testuan lehenaldi burutua erabili delako; *deskribapena* dela burutu gabearen erabileratik; *argudiozko testua* dela lokailu berezi batzuk darabilzkielako (*baina*, *ondorioz*, *beraz*, *etab.*), *azalpenezkoa* beste lokailu batzuen erabileratik eta *argibidezkoa* agintekera edo infinitibozko aditzak erabiltzeagatik; *ondorioz*, kasuan kasuko estrategia batzuk baliatuko ditu, gogoan baitu beste egoera batzuetan balio izan diotela. Aurkikuntza horrek bultzatuko du aurretik dituen ezagutzak erabiltzera (testu-mota nolakoa, ezagutzak halakoak) eta batez ere eraginkortasunez mugitzera.

### **Oinarrizko tipologia baterantz**


Werlich-en sailkapena garatu eta zehaztu beharrekoa da, oso kontuan edukirik tipologia horri heltzeko arrazoi bakarra dagoela: berbaldi oro testu heterogeneoen hurrenkera dela eta tipologia nahaste horren konplexutasunari heltzen lagundu behar digula. Gogoetak gaur gaurkoz dauden eran egonda, 8 oinarrizko testu-mota aurkituko ditugu, hizketa-egintza mota handien arabekoak (baieztatu, konbentzitu, agindu, auresan, galdekatu). Baieztapena (mundu jakin batean gauza batzuk egia direla dioen hizketa-egintza) da hiru lehenengo testu-moten iturria:

#### *Narraziozko testuak*

*Gertaeren enuntziatuak* baieztatzeak narraziozko testuak emango ditu, baldin eta gertaera horiek,aldi berean, denbora eta kausazko garapena (kronologikoa) badute. Narrazioa gauzatzen da batik bat: *erreportaia*n (kirol eta gazetetan), *gertaeretan*, *eleberrian*, *gazetilan*, *ipuinetan*, *his-*


*torian* (historiaren kontraera), *parabolan*, *iragarki narratiboetan*, *kontakizun politikoan*, *zinean*, *marrazki bizidunetan*; *lekuko deklarazioak* eta *istripuetako ahozko prozesuak* egongo lirarteke mota honen azken muturrean. Esan gabe doa, gaur egun ongien ezagutzen dugun testu-mota kontakizuna dela. M. Fayol-en zehaztapenen (5) eta nik neuk egin berri ditudan sintesien argitan (6) diot kontakizun bat testu egiten dutela, alde batetik, berorren alderdi kronologikoak eta, bestetik, konfigurazioak. Bi alderdi horiek ziurtatuko dute aldi berean gertaeren segida eta kontakizunaren koherentzia. Nik ondorengo eskema honetan laburbiltzen dut hori:

.1



Nik (III) era honetan irudikatzea proposatu dut:

.2




Eranskineko 1. testuan, nabaria da lehenengo hiru paragrafoetako bakoitza makro-proposizio bati dagokiola (P 1, P 2 eta P 3); laugarrenaren hasiera, P 4ri, eta handik aurrekoa P 5i.

### Deskribapena


*Egoerako enuntziatuak baieztatzeak* deskribapena emango du. Deskribapenean maiz egon ohi dira proposizioak espazioan era jakin batean antolatuak, eta berbaldi lexikografikoarekin lotura berezia du testu-mota honek. Kontuan hartzekoa da Barthes-en intuizio bat: “Deskribapenaren eredua (urrutikoa) ez da hitzalditako berbaldia (ez da ezer “pintatzen”) makineria lexikografikoa baizik” (*Le plaisir du texte*, 45. or.). Irakurleak, narraziozko testu baten aurrean dagoela ohartzen denean, gertaeren bilakaera espero du batik bat, ordena logiko-semantiko baten arabera irtenbide bat gutxi edo asko aurreikusteko modukoa. Garapen hori eman berri dugun arbola antzeko eskema horretan dago irudikatua, eta neurri handi batean ez du adierazteko moduarekin loturarik (kontakizuna erraz aldatuko da hizkuntza baten kodetik beste batera); aitzitik, deskribapena arautzen dute, alde batetik, azaleko egitura semiotikoei eta, bestetik, lexikoaren egiturek. Badirudi irakurleak isilpeko hitzen paradigma-jario bat espero duela eta guk Ph. Hamon-en ohar semiotikoei (7) jarrai geniezaieke, azpimarratuz subjektuaren gaitasun lexikalari dei egin zaiola. Narrazioa nagusiki lineala den bezala, deskribapena tabularra da, literaturan bezain ongi azalduko da publizitatean. Oro har antolakuntza berbera dute *inbentarioak*, *turismo-gidak*, *hiztegiak* (dela entziklopedikoa dela hizkuntzakoa), *hitz gurutzatuak*: sarrera-hitza → definizioa, hedapena. Koherentzia eta kohesioa zaindu eta garatu beharko dira bai syntaxian (testua esaldi-proposizio multzotan antolatzen duten lokailu bereziak, erreferentziak eta anaforak) bai hiztegian (elkarri gainjarritako terminoak eta termino hiponimikoak). Arreta berezia merezi du orobat testu osoaren kohesio-koherentziak. Kontakizunaz ariki esan dugun bezala, hiru maila hauetan azaldu behar dute kohesioak eta koherentziak:

.3






.4



.5



Nik jada beste nonbait proposatua dut (III) J. Ricardou-k eleberrietako deskribapenei buruz egindako lanen haritik sortutako eskema batekin irudikatzea. Izan ere, elkarren segidako testuen gainegitura honek batasun hierarkizatu batean antolatzen ditu predikatu kalifikatzaileen eta funtzionalen ardatz diren mikroproposizio deskribatzaileak (testuan behin betirako lerrokatu baino lehenago).

Hemen azaltzen diren adibideak *Le Récit*, 52-57 orr. eta *Pratiques*-en (1982, 77-117 orr.) A. Petitjean-ekin batera idatzitako artikuluetakoak dira.

#### Testu esplikatzaileak

*Baiezatztea, azken finean, (kontzeptuak) Esplikatzte-egintza bat da, norbaiti zerbait ulertaraztea alegia.* Werlich-ek testu espositiboa deitzen dionari “azalpenezko testu-mota” esan behar zaio. Nik, gai honetan, *Litré*-k azalpenari buruz dionari jarraitzen diot: Azalpena da “gauza bat ulertzeko moduan eta arrazoia emanez agertzen duen berbaldia”. Kategoria honetan *diskurtso zientifikoa* eta *diskurtso politikoa* sartuz gero, ikusten da diskurtso politikoa azalpenaren aldaki bat dela: *zuritzea*

*aldakia*. Asko landu dute testu-mota hau –"zeren" eta "horregatik" eta antzeko lokailuak dituen– Neuchâtel-eko Ikerketa Semiologikoen Zentrukoek J.-B. Grize-ren gidaritzapean. Ikus, bereziki, M.-J. Borel-en artikulua *Langue Française*-n (1981). Ikus eranskinean bere heterogeneotasunarengatik aukeratu dugun 2. testua; 6. urteko Fisikako liburu batetik hartua da. Esplikaziozko berbaldia ageri da argi eta garbi ebaluaziozko esaldietatik (admirazio-ikurrez markatutakoetatik) esaldi objektiboetara igarotzen denean. Doktoreak aldi berean dauzka bere menean solaskidea eta objektua edo gaia. Diskurtsoarteak (Ross kapitainarenak) beste berme zientifiko bat ematen dio berbaldiari.

## Argudiozko testuak

*Konbentzitzeko berbaldi-egintza* (sinestaraztea, buruan sartzea) argudiozko testu-motan sartzen da, oso luze eta zabal aztertua hau ere. Ez dut honetan gehiago jardungo, aski da argudiozko testuaren hipotesiari eustea. Ikus puntu honetan "Le résumé de texte", L. Sprenger-Charolles, *Pratiques* 26. zenb., (1980) 75. eta hurr. orr. eta aldizkari bereko 30. zenb. (1981) nire artikuluko 90-98 orrialdeak. Hortxe daude ikertuak aipatutako eskema eta testua.

.6

|                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|--------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Aurreko tesia<br>(inplizitoa)  | Gizasemeek esku leuneko emakumeak dituzte atsegin.                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| PREMISA                        | Hori badakizue.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| ARGUDIOAK                      | Baina gauza jakina da, era berean, harrikoa emakumeok egiten duzuela.<br>Baina ez amore eman, eutsi zeure xarmari.<br>Erabili GARBIGOXO.<br>Ontziak garbi eta diztirante edukiko dituzu.<br>Eta eskuak, GARBIGOXOk duen arrosa-hostoen urari esker leunago eta politagoak.<br>Eskerrak emango dizkizute ontziek.<br>Eta senarrak ere bai. |
| ONDORIOA<br>ETA TESI<br>BERRIA |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |

Kontuan har dezagun gainegiturako makro-proposizioen lekua aldatu egingo dela segun eta nolakoa den argudioa. Perelman eta Olbrechts-Tyteca-k ikertu dute gai hau: tesia testuaren hasieran ala bukaeran egongo den, aurreko tesiak azalduko dituen ala ez, argudioen ordena, etab. (*Traité de l'argumentation* PUF, 1958, 34-39 orr.)

## Testu agintzailea

*Agintzera bideratutako berbaldi-egintzak*, zerbait eragitekoak, alegia, Werlich-en instrukziozko testuen tipologia gehiago zabaltzeko bide ematen du *eragiteko testu* izen emanez. Era horretakoak dira *sukaldeko errezetak*, *muntaketarako argibideak* eta *kontsignak* oro har. Errezetak eta muntaketarako argibideak kronologiaren arabera ordenatuta baldin badaude (eta, beraz, kontakizunaren antzera: hasieran egoera batean, *gordin* edo *nahasian* zeudenak gero *maneatuta* edo *ordenatuta* eran

egongo dira, beste egoera batean, alegia), testu horiek ez dute izango antolaketa hierarkikorik ezta egintzak sustatzeko xedea beste izaerarik ere.

Orain arteko 5 mota klasiko horiei beste 3 gehitu behar dizkiegu:

*Testu auresalea*      *Testu mota honek auresateko berbal-di-egintza* garatzen du (zerbait(ek) gertatu egingo da/gertatu egin behar du); *iragarpenetan, metereologi bulletinetan eta horoskopoetan* gauzatuko dira.

*Elkarrizketako testuak*      Solasari buruz berriki egin diren lan guztiek deskribatu dituzte; baina T. A. van Dijk-ek, esaterako, ez du hor testu-mota berezirik ikusten, nahiz eta aitortzen duen “zenbait lan berrik bistaratu duenez, elkarrizketak badituela bere ezaugarri estruktural berezi batzuk”. Egintza *erotatiboak* (Galdekatzeak) bakarrik ziren hasiera batean mota honetakoak, baina beste batzuek ere badute sail horretan lekua: *satisfaktiboak* (desenkusatzekoak, eskerrak ematekoak...), *sustatzekoak* (agintzariak, iragarpenak, mehatxuak...) , *retraktiboak* eta *bokatiboak*. Ohar bat egin dezagun: hauxe da soil-soilik haurrak lehendabizi bereganatzen duena; horixe besterik ez dira “zergatik...?” famatuak. *Interbiua eta elkarrizketa* (eleberrietako nahiz antzerkikoa) dira mota honetako ohikoenak, eta benetako berbaldirik gehienetan aurkituko dituzu.

*Testu erretorikoak*      Azkenik, bada beste testu-mota bat ere zerrenda honetan sartu beharrekoa: poema. Jeneralean ez da tipologietan azaltzen, ez baitie, dirudie-nez, ikertzaileei gozoz ematen. Liegeko Groupe 11-ko zenbait iker-tzailerekin batera (*Rhétorique de la poésie*, Complexe, 1977), nik ere uste dut testu erretorikoen mota bat ere badela. Honen barruan sartzen dira: *poema, prosa poetikoa, abestia, seguraski otoitza, sloganak, esae-ra zaharrak, zahar-hitzak, graffitiak* eta *titulu-mota guztiak*. Era horretako testuak ziren Roman Jakobson-ek “funtzio poetikoa” izenpean bil-du nahi izan zituenak. Gauza bat bakarrik esan nahi dut hemen: testu erretorikoan adierazpen-planaren eta eduki-planaren (Greimas) arteko koerlazio-postulatuak era berean ukitzen dituela bertsoa, slogana eta esaera zaharra. Irudiak eta, zabalago hartuta, baliabide erretorikoak era-biltzeak eskatzen du testua neurriaren eta erritmoaren, eta sintaxi, metri-ka, fonetika edo grafiako paralelismo-multzo baten arabera antolatzea; eta horrek ekar dezake hitzen ordena sintaktikoa zalantzan jartzea ere. Ezagumenaren ikuspegitik, *tabularitateak* eta testuaren barne loturak denbora ziklikoa ezartzen dute denbora linealaren lekuan. Testu erreto-rikoak zabaldu egiten du epe motzeko oroimenaren edukia, eta idazkia espazioan banatzeko moduak ere garrantzi berezia du maiz askotan.

Adibide bat bakarrik aipatuko dut, oso motz eta nahastua delako (8) (argudiozko testuaren (silogismoa) eta testu erretorikoaren nahasketa) berariaz aukeratua. *Le Texte poétique*-n (De Boeck-Duculot, 1985) zabalago aztertua daukat.



*Loreetan daude indar guztiak  
Eztian daude lore guztiak  
Trubert eztian.*

Sintaxia, neurria eta kiasmoa dira aurrekietatik ondorioetarako argudio-bidea ( $A = B$ ,  $B = C$ , beraz  $A = C$ ). Funtza, ordea, beste maila batean dago: errepikatutako multzoak sistematikoki elkarri lotuz, bi zeinu berterik ez ditugu aurkitzen, bata esanahirik gabekoa: *Trubert* izen propioa, eta bestea konotazio semantiko askokoa: indar. Lotura anagramatikoak izen propioaren semantizazioa ekarri du.

## **Heterogeneitatea eta eite nagusia**

Bukatzeko, esan dezagun ez dela ia benetako berbaldirik bere barnean testu-mota bat baino gehiago ez duenik. Kuestioa, beraz, funtsean testu-era desberdinak aurkitzea izango da (narraziozkoa, deskribapenezkoa etab., luzera eta homogeneitate desberdinetakoak izango direnak) eta batez ere berbaldiaren eite "nagusia" (dominante) Jakobson-en terminoa erabiliz. Orobat eranskinean azaltzen diren testuetan eta Trubert eztiarenean, funtsezko zailtasuna testuen nahasmenduan, beren antolamendu *narraziozko, argudiozko eta erretorikoetan*, argia aurkitzea dago. Testuaren heterogeneotasun horretan ageri da edozein berbalditako kode-aniztasuna. "Testu orok bere egituran homogeen izan nahi du, baina, nahi hori gora behera, beti azalduko du heterogeneoaren kausalitatea edo (...) brikolaia", halaxe dio F. François-ek. Eta, amaitzeko, tipologia moldatzeko edozein ahaleginek, zentzurik izango badu, baldintza bat bete beharko du: ez dezala xehetu, ez dezala hesitu berbaldi orok berea duen konplexutasuna.

## **Eranskina**

### **1 Amona xaharraren etsipena**

Oso pozik zegoen amona xahar ximurtua. Denek festa egiten zioten, denek atseginu nahi zuten ume polita ikusita; izaki polit hura, bera bezain hauskorra, eta, bera bezala, hortzik eta ilerik gabea.

Eta hurbildu zitzaion umeari, bere hari irribarretxoak eta imintzio atseginak egin nahian.

Baina umea, ikaratuta, ardaila batean ari zen emakume on zahartuaren balakuean eta etxe osoa bete zuen bere garrasiekin.

Orduan amona xaharra bere betiko bakardadera bildu zen eta negarrari eman zion txoko batean, bere artean esanez:

– Guretzat, amona xahar dohakabeontzat joan ziren inorentzat atsegin izateko garaiak, baita inozenteentzat ere; eta beldurtu egiten ditugu maitatu nahi ditugun haurtxoak.

(Boudelaire, *Petits Poèmes en Prose*)

### **2 Materiaren berezitasun fisikoak**

Abentura bat munduaren ipar-buruan.

Hatteras kapitaina, doktorea eta horien lagunak bidailagun dira iparburua aztertzeko espedizio batean. Egin berri dute hormazko txabola bat, baina ez dute zer janik eta horra non datorkien segika hartz gosetu bat. Zer egin? Ez dute beren fusilentzako balarik ere.

“Bihar, dio doktoreak, nik hilko dut hartz hori!

– Bihar! dio Johnson-ek, amets gaizto batetik atera bailitzan.

– Bihar!

– Ez duzu, ordea, balarik!

– Egin egingo dut.

– Ez duzu berunik!

– Ez, baina merkuriozkoa egingo dut.

Eta, hori esanda, termometroa hartu du doktoreak eskuan: barruan 10° daude. Doktorea kanpora atera da, termometroa jarri du jela-zati baten gainean eta berehala berriro txabola sartu. Kanpoko hotza zero behetik 47°koa da. “Bihar arte, esan dio marinel zaharrari, ondo lo egin eta itxaron dezagun eguzkia atera arte”.

Biharamunean, egunsentian kanpora atera zen doktorea Johnson atzetik zuela eta termometroa zegoen lekura joan bizi-bizi: merkurio guztia termometroaren depositoan zegoen zilindro gogor baten antzean. Doktoreak tresna hura hautsi eta, behatzak zuhurki eskularrutan babesturik, metal zati bat jaso zuen malgutasun gutxikoa eta gogortasun handikoa. Benetako lingotea zen.

“ Ai, Clawbonny jauna, esan zuen talde-buruak, haxe da miraria! Gizon trebea zara gero!

– Ez, lagun, ez, erantzun zuen doktoreak. Ni naiz oroimen oneko eta asko irakurritako gizon bat.

– Zer esan nahi duzu?

– Ross kapitainak bere bidaiako gertakizun bat kontatzen duela etorri zait gogora: behatz baten lodiko xafla zulatu omen zuela merkurio izoztutako bala batekin. Olloa eskura eduki izan banu, berdintsu izango zatekeen; izan ere, hark dio amanda-oliozko bala batekin jo zuela zutabe bat, pitzatu eta lurrera bota zuela puskatu gabe.

Hartza termometroko merkurioaz egindako balak jota hil zen.

(Jules Verne, *Les aventures du capitaine Hatteras*)

### 3 Lorik eza

Tiroek gauean abisatuko balute, beldurra algara bat izango litzateke eta estuasuna barkamen, baina gaueko tiro etengabekeok nahastu egiten dute lorik ezak eta hotzak urduritutako zelataria.

(R. Queneau, *Les Ziaux*)

*Itzultzailea: Boni Urkizu*

## Oharrak

\* Frantsesez "Quel types de textes?". *Le français dans le Monde* (192: 39-43, 1985eko apirileko alea) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

- 1 Hemen testuen teoriaren alderdi bat besterik lantzen ari ez garenez, T. A. van Dijk-en honako bi artikuluoak dauzka irakurleak ikuspegi osoa nahi izanez gero: "Etudes du discours et enseignement" *Linguistique et sémiologie* aldizkariak Hizkuntzalaritzari eta hizkuntzen irakaskuntzari eskainitako alean, 11-81 orri. (Presses Universitaires de Lyon, 1981). - Le texte: structures et fonctions. Introduction élémentaire à la science du texte, 63-93. orr. A. Kibédi Varga-k zuzendutako *Théorie de la littérature* (Picard, 1981).
- 2 Ikus H. Portine, L'argumentation écrite, 45. orr. eta hurr. BELC Hachette/Larousse, 1983.
- 3 *L'énonciation. De la subjectivité dans le langage* - Catherine Karbart-Oreccioni 156. orr. eta hurr. (A. Colin, 1980)
- 4 *Typologie der Texte*, Haildeburg, Quelle eta Meyer, 1975. *Text analysis and Text production*, 1. Stories and Reports. Impressionnistic and Technical Descriptions, Dortmund, 1975.
- 5 M. Fayol: *Le récit, une approche cognitive* (Delachaux-Niestlé, 1985).
- 6 J. M. Adam: *Le récit* (PUF, Que sais-je? 2149 zenb. 1984): *Le texte narratif* (Nathan-Université, 1985).
- 7 Analyse du descriptif, Hachette, 1981.
- 8 Ikus orobat eranskinean aipatzen eta aldez (1 bezala) analizatzen den 3. testua *Pratiques*: 43. zenb. (1984): "Des mots au discours, l'exemple des principaux connecteurs" artikuluan.